

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Zerbitzu-enpresa ondorengoetan espezializatua: laneko arriskuen prebentziorako aholkularitza eta prestakuntza, laneko osasunaren hobekuntza eta laneko arriskuen prebentziorako araudia betetzea; hau 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, Laneko Arriskuen Prebentziokoak erregulatzen du, eta bertan ezartzen dira segurtasun eta osasunaren babeserako zenbait printzipio orokor lanbide-arriskuen prebentzioaz, lanaren ondoriozko arriskuak kendu edo gutxitzeaz, prebentzio-arloan langileen informazio, kontsulta, parte-hartze orekatu eta prestakuntzaz.

MERKATU-DATUAK

□ *Sektorearen bilakaera*

Gaur egun EAEn kreditatuta, OSALANen 2001eko txostenean agertzen den bezala, honako hauek daude:

- 25 prestakuntza-erakunde maila ertaineko ikastaroak emateko.
- 32 prestakuntza-erakunde goi-mailako ikastaroak emateko.
- 23 besteren prebentzio-zerbitzu, EAEn kreditatuak.
- 16 besteren prebentzio-zerbitzu, beste Erkidego batzuetan kreditatuak eta EAEn informatuak, eta
- 8 prebentzioko sistema-ikuskaritza, EAEn kreditatuak.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktua/zerbitzuak*

Zerbitzu-zorroa zehazteak garrantzi handia du, marketin-politika aplikatu beharko baita, zerbitzu-ematearen kalitateagatik eta zenbait taldetan lortutako espezializazioagatik bereiziz, lan-istripuen mutuek “prezio” faktorean oinarrituago dauden politikak hartu baitituzte. Horren haritik, garrantzitsua da kontuan izatea mikroenpresen segmentuak mutuek zerbitzatzen dituztela beren lan-gestorien bidez.

Egokiagoa da zerbitzutan aberats den zorroa eskaintzea: arriskuen ebaluazioa, prebentzio-jardueraren plangintza, arrisku orokorren azterketa eta arrisku espezifikoaren azterketa, gertakari-zuhaitzak, arriskuen analisi kuantitatiboa (ACR), segurtasun-ikuskatzeak, norberaren babeserako planak, alarma- eta ebakuazio-planak, lanpostuaren ergonomia eta diseinua, arrisku-lekuak markatu eta seinaleak jartzea, suteak prebenitu, detektatu eta itzaltzeko sistemak, baliabidez hornitzea, enpresako prebentzio-organoak diseinatzeko aholkularitza, sorospena, lan-absentismoa kudeatzea...

Garrantzitsua da espezializazio-trebetasunak garatzea, ostalaritza, eraikuntza, obra zibila... bezalako sektoreetan sartu ahal izateko.

□ *Sustapena*

Sustapen-bide eraginkorrenak honako hauek dira:

- Zerbitzu espezifikoak diseinatzea sektore jakin batentzat eta zerbitzua enpresa garrantzitsuenetara egindako bisita pertsonalen bidez sustatzea. Ahalmen handieneko sektoreak eraikuntza eta ostalaritza dira, eta ondoren bulegoak.
- Sustapena lan-gestoriekin elkarlanean egitea, gure enpresara jotzea aholkatu dezakete eta.
- Prestakuntza-ikastaroak egitea, gero izena ematen dutenak bezero bihurtzeko aukera baitago.

Sustapen-bide eta estrategia hauek eraginkorragotzat jotzen dira generikoak baino, nahiz eta beti izan desiragarria marka sortzea prentsa espezializatuan iragarkiak txertatuz.

Plan Operatiboa

□ *Lokala eta kokapena*

Kokapena ez da funtsezko faktorea, zerbitzua beti emango baita bezeroa dagoen lekuan. Hala ere, prestakuntza-ikastaroak ematen baditugu, hiru faktore izan beharko dira kontuan: gure bezero asko dagoen gunean kokatzea, autoa uzteko erraztasuna, eta prestakuntza-zerbitzuak emateko egiaztagiria lortzeko administrazioaren baldintzak betetzea.

□ *Ekipamendua*

Bi kasu hauetarako bakarrik behar da tresneria berezia:

- Ikastaroak emateko, aurreko atalean aipaturiko baldintzak bete behar direlarik.
- Prebentzio mediko, sorospen edo suteak itzaltzea bezalako gaietan ikastaroak eta aholkularitza emateko tresneria egokia behar da gai horietako bakoitzean azken berritasunak eskaintzeko (batez ere, simulazioei dagokienean).

Inbertsio-plana

Hasierako inbertsioa negozioari ematen zaion ikuspegiaren araberakoa izango da. Ez bada instalazio propioetan prestakuntza-ikastarorik ematen eta aholkularitza-lana

bakarrik egiten bada, 9.000-12.000 euroekin aski izango da ziur asko, inbertsio-ahaleginaren zatirik handiena informatika-tresnak eta altzariak erosteko eta hasierako sustapenerako izango delarik. Baina, aitzitik, prestakuntza-zerbitzua eman nahi bada, 40.000 eta 60.000 artekoa izango da inbertsioa: 15 laguntzako prestakuntza-geletako informatika-tresnak eta altzariak gutxienez 18.000 eta 24.000 euro artean, instalazioen egokitzapena 6.000 eta 8.000 euro artean, ikastaroetarako azken belaunaldiko tresnak 6.000 eta 12.000 euro artean, eta sustapen-lana gehi maniobra-funtsa.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

- Istripu-mutuen lehia bizia izan behar da kontuan eta zerbitzua emateko konpainia interesgarrietan (ostalaritza-kate, eraikuntza-konpainia, ur-parke...) enpresa lehiakideak indartsu ezarrita daudela. Horregatik, ez dirudi komeni denik prezioan oinarritutako marketin-estrategiak hartzea, baizik eta balio erantsi bereizgarri garbia ematea, interes handieneko segmentuetan sartu nahi badugu.
- Interesgarria da bezeroak guregana bidera ditzaketen lan-gestoriekin hitzarmenak egitea.

- Beste aukera bat zerbitzu-oinarri zabalagoarekin proiektuak gauzatzea (kalitatea-ISO arauak, ingurumen-kudeaketa, giza baliabideak, prestakuntza...), arriskuen prebentziorako zerbitzuez gain, horrela:
 - beste arlo batzuetan ere diru-sarrerak izateko.
 - Beste arlo batzuen bidez (kalitatea, prestakuntza...) konpainietan sartu, hauen konfiantza irabazi eta gerora hauetan ere prebentzio-zerbitzua eman ahal izateko.

HELBIDE INTERESGARRIAK:

OSALAN

<http://www.osalan.net>

ISTRIPUEN PREBENTZIORAKO ELKARTEA— ASOCIACION PARA LA PREVENCIÓN DE ACCIDENTES

<http://www.apa.es>

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO, SEGURTASUN ETA OSASUNARI BURUZKO ATARIA

<http://www.prebention-world.com>

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ATARI TEMATIKOA

<http://www.prevencionintegral.com>